

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

L.G. 03-019703



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

otsaila 2009 | 67. zenbakia | NEGUA



Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2005-2008

Kultura

ots.20

INAUTERIETAKO DESFILEA Pedro M^a Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza Ikastolaren eskutik.

Ikastetxeetako haurrak Pagamuño Plazan bilduko dira eta 15'30etan hasiera emango zaio desfileari.

Herrian zehar ibili ondoren, Paus Plazan emanaldia eskainiko dute eta ondoren merienda.

ots.28

ZIZURKILGO BLUES MUSIKAREN VII. JAIALDIA Zizurkilen ezer ez eta festa!!! Zikloaren barnean herriko tabernetan. Sarrera doan.

- 23'00etan: **BELCEBLUES** Atxulondo Tabernan.

- 00'15ean: **BIG MAMA** (Bartzelona) Egarrri Tabernan.

- 01'30ean: **BLUEDAYS** (Valladolid) Aurrera Tabernan.



EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA:

Martxoaren 7an SOBRONEKO (Araba) URAREN MUSEORA eta VARONA DORRERA irteera egingo da. Ondoren, bazkaria Miranda de Ebroko Duque de Frias Jatetxean. Izen emateak Aurrera Plazako Bulegoetan eta Liburutegian. Izen ematea egiteko orduan 28 euro ordaindu behar dira.



MARTXOAK 8

Tutoritzak otsailaren 4 eta 18an egingo dira 9'00etatik 11'00etara.

Euskara

ATXULONDOKO AZKEN OLAGIZONA ipuina:

Leire Zubeldia zizurkildarrak idatzi eta Juan Luis Landak ilustratutako ipuina salgai dago Udaletxe, Udal Bulego eta liburutegian 5 euroren truke. Zatoz zure alearen bila!



Bestelakoak

SEGUNDO MONTES KOMUNITATEAREKIN ANAIERATZEA:

Villabonako Udalak El Salvadorreko Segundo Montes Komunitatearekin anaiertzeko erabakia hartuko dut otsailaren 4an ospatuko duen Batzarrean. Modu honetan, bailaran lau izango dira Komunitate honekin anaierratuta egongo diren herriak: Aduna, Asteasu, Villabona eta Zizurkil, eta indar handiagoa izango da proiektuak aurrera ateratzeko. Momentuz, Komunitateko zazpi haurtzaindegietan baratzak sortzeko ekimenaren alde dirua biltzen ari gara. Nahi duen orok bereziki proiektu honetarako ireki den kontu korrantean bere ekarpena egin dezake: **2101-0072-75-0012125464** (Kutxa).

Eskerrik asko!

